



**PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-PRINTZIPIOAK, SUSPERTZE- ETA ERRESILIENTZIA-
MEKANISMOARI DAGOKIONEZ**

Aiarako Kuadrillako enplegatu publikoak konprometitu daude herritarrei zerbitzua ematearekin eta interes orokorrak defendatzearekin, eta esleituta dituzten zereginak arduraz betetzearekin, betiere Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuz.

Bere jardunaren printzipio gidariak honako hauetan oinarritzen dira:

- Konstituzioa eta antolamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatzea.
- Herritarren interes orokorrak betetzea, inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboetan oinarrituta, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.
- Leialtasuna eta fede ona lanean diharduten administrazioarekin, nagusiekin, lankideekin, menpekoekin eta herritarrekin.
- Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetuan oinarritzea, eta era guztietako bereizkeriak saihestea, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta sor litezkeenak.
- Interes pertsonala duten gaietan abstenitzea eta, lanpostu publikoaren interesetik gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.
- Lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua dagoenean, ez hartzea betebeharrak ekonomikorik, eta ez parte hartzea pertsona nahiz entitateekin finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharretan edo negozio juridikoetan.
- Pertsona fisiko nahiz entitate pribatuengandik mesede-traturik ez onartzea, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- Efikazia, ekonomia eta efizientzia jarduera guztietan, eta interes orokorra eta erakundearen helburuen betearazpena zaintzea.
- Bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo izapideak azkartzeko edo ebazteko eraginik ez izatea; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar interes partikularren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.
- Arretaz betetzea zereginak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta epe barruan ebaztea eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.
- Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioaren printzipioari jarraituz betetzea dagozkien eskuduntzak, eta saihestea, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoaren jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.



- Sekretupean gordetzea sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhertasunez jokatzeko beren kargua dela-eta dakizkiten gaiei buruz; eta eskuratu duten informazio hori ez erabiltzea ez beren mesederako, ez hirugarren batzuen mesederako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

Printzipio horiek guztiak administrazio publikoen zerbitzura diharduten funtzionarioen eta lan-kontratadun langileen estatutu-araubidea arautzen duten lege-testuetan jasota daude: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, eta abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Emplegu Publikoari buruzkoa.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-kargudunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodera atxiki behar dira. Kode hori Gobernu Kontseiluaren 2016ko azaroaren 22ko Erabakiaren bidez onartu zen. Atxikipenarekin, kargu publikodunek konpromisoa hartzen dute dimisioa aurkezteko, baldin eta ezarritako jokabideak betetzen ez badituzte.

Kodean identifikatzen dira agintzen zaizkien jokabideak eta portaerak, hala publikoak nola pribatuak, beren ekinbidea bat etor dadin erabat gobernatza onaren balio, printzipio eta estandarrekin; alegia, ustelkeria, iruzur, arbitrariotasun, gaitasunik ez, xahukeria eta orotariko efikazia eta efizientzia ezaririk ez egotea, eta partaidetza demokratikoan, gardentasunean, kontuak ematean eta legeak betetzean oinarritutako erabakiak hartzeko eta politikak ezartzeko prozesuak egituratzea.

Kargu publikodunen jokabide-kodeak, administrazio publikoetako langile guztiei eskatzen zaizkien printzipio orokorrak ezartzeaz gain, helburu hau du:

Eredugarritasuna jarduketa guztietan, eta erakundeen irudia zaintzea, herritarrek erakundeetan duten konfiantza indartzeko bide gisa.

Bikaintasuna lortzea; horrek berekin dakar inplikatzeko eta ahalegin jarraitua egitea etengabeko hobekuntzan, herritarren eskakizunak guztiz betetzeko erabaki publikoaren eta ematen diren zerbitzu publikoaren bitartez, modu efizientean jardunez, eta erakundeetan lan egiten duten pertsonen helburuetan bat etortzea xede, hala nola teknologiei eta prozesuei lotuta.

Politika eta kudeaketa bat etortzea du xede, erakundeen kalitatea hobetzeko; horretarako, estrategiak, helburuak eta baliabideak egoki hedatu behar dira goi-zuzendaritza exekutiboko egiturako maila politikoen artean eta zuzendaritza-mailatan (tartekoetan), bai eta administrazioko gainerako langileen artean ere. Bat etortze horretan, beharrezkoa da proiektuak eta informazioa partekatzea, konfiantza eta taldean lan egiteko giroa sortzea, eta ideiak eta jarduna sustatzea, gobernu-programa garatzeko eta, horrenbestez, herritarren beharrik betetzeko.

Beharrezkoa da lidergoak ikuspegi estrategikoa izatea, zentzua eta norabidea ematea erakundeari, balioa egiaztatzea eta giro egokia sortzea, egitura horretan lan egiten duten pertsonen gogoia, inplikazioa, ahalegina eta leialtasuna sustatzeko, taldeak trinkotzeko eta jokabide proaktiboa izateko, ardurak, kasuen arabera, eskuordetuz behar izanez gero.



Beharrezkoa da berrikuntza, eta horrek berekin dakar kultura molde hau ezartzea eta sustatzea erakundean: sormena sustatzea, pertsonen lanbide-gaitasunak garatzea eta prozesuen, produktuen eta zerbitzuen emaitzak etengabe hobetzea.

Kargu publikodunen etika eta jokabide kodeak egiatan balio dezan portaera hobetzeko, Etika eta Gobernu Onaren Batzordea eratu da Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren mende, eta aipatu eginkizunarekin; alegia, oharrak, kontsultak eta iradokizunak jasotzea, eta hobekuntza-proposamenak ere bai, kargu publikodunei horiek aplikatzen laguntzea, gomendioak eskainiz, eta balizko ez-betetzeengatik egon daitezkeen kexak edo salaketak jasotzea.